



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko maiatzaren 16a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, hiru urtetik beherako haurrak eskolatzeko hezkuntza politikari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hirugarren adinekoentzako laguntza arau dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da industria plan bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat “Ikastetxe publikoak eraikitzea eta hobetzea” izeneko kontusailean sar dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat Otik 3 urtera bitarteko haurren eskoletarako erabil dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat menpekotasuna eta gizarte bazterketa jasaten duten sektoreei laguntzeko erabil dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat herrietako osasun etxeetarako langile eta baliabideen eskaerari erantzuteko erabil dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa eta Ingurumen Ministerioa premiatzen dira Itoizko urtegiaren segurtasunari lehentasuna eman diezaioten. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen politiko, Nafarroaren eskubide historikoen errespetua dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Murietako Udalarekin araztegi bat jartzeko adostasun faltari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (11. or.).
- Galdera, EHNren salmentatik etorritako diruaren gaur egungo egoerari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egina (11. or.).
- Galdera, farmaziako teknikari tituluari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egina (12. or.).
- Galdera, kontserbatorio berria eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egina (13. or.).
- Galdera, “Etorkinak gizarteratzeko sostengu programa” izeneko kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (14. or.).
- Galdera, “Etxebizitzarako eta gizarteratzeko laguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (14. or.).
- Galdera, “Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (15. or.).
- Galdera, gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko planaren ebaluazioari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (16. or.).
- Galdera, oihan-ustiategietarako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Irunberriko San Isidro egoitza handitzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak publikoki eskuratzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzendaria prestatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egina (19. or.).
- Galdera, hainbat eskualdetan telebista seinaleak hartzeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Beste gastu batzuk” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Dietak, lokomozioa eta bidaiia-gastuak” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (21. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- “Egues kasua” delakoa aztertzeke ikerketa batzordearen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak (23. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, hiru urtetik beherako haurrak eskolatzeko hezkuntza politikari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak hiru urtetik beherako haurrak eskolatzeko hezkuntza politikari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak lehendakariari. Jabeldura hiru urtetik beherako haurrak Nafarroako hezkuntza sisteman eskolatzeko hezkuntza politikari, ikasle horiei laguntza emateko gaur egungo eremuan egin asmo diren aldaketei eta eredu hori finantzatzeko sistemari buruzkoa da.

Jabelduraren azalpena

2000. urtetik aitzina, Nafarroako Alderdi Sozialistaren ekimenez, aurrera egiten ari gara Nafarroako hezkuntza sisteman hiru urtetik beherako haurrentzako hezkuntza zikloa ezartzeari dagokionez, hezkuntza etapa horretako eskaerari erantzuteko xedearekin.

Nafarroa harro egon daiteke, autonomia erki-dego aitzindarietako bat izan baita eskolatzeko eskaintza maila horretara zabaltzeari dagokionez, nahiz eta ez diren bete hezkuntza ziklo hori ezartzeko hasierako akordioetan jasotako aurreikuspenak.

Inork ez ditu zalantzan jartzen etapa horrek duen hezkuntza balioa eta ikaspostuak eskaintzearen beharra, lana eta familia bateragarri egitea-

ren arloan aurrera egiteko, ezta administrazio publikoek bere gain hartu behar dutela finantzazioaren zatirik handiena ere. Hala ere, azken aldian badirudi UPN eta CDN alderdiek osatutako Nafarroako Gobernuak eredu horren ezarpena geldiarazi nahi dutela, eta horretarako, eredu hori "agortuta" (?) dagoela eta horren finantzazioa diru publikoarentzat jasanezina dela argudiatzen dute.

Aldi berean, Gobernuarekin hezkuntza ziklo hori ezartzeko itunak egin dituzten udal gehienen ustez, ikastetxe horien finantziazioan haiei dagokien zatia handiegia da udalarentzat eta eskatzen dute zikloa doakoa izatea eta Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantzatzea.

Egoera horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuak iragarri du familiek ordaindu beharreko tarifak igo egingo direla etorkizunean, errenta-mailaren arabera. Alderdi sozialistaren ustez, hori ikaspostu eskaerari eta udalek hezkuntza eskaintza horretan duten parte-hartzeari pizgarriak kentzeko saiakera da eta zikloaren ezarpena gelditzea ekarriko du berekin.

Proposamen horrek, halaber, UPN eta CDNren inkongruentzia nabarmena adierazten du; izan ere, alderdi horiek urte askotan saiatu dira gure hezkuntza sistema derrigorrezkoak ez diren hezkuntza mailak erabat finantzatzen, doakoak izateraino. Pedagogiarekin, hezkuntza ereduarekin edo finantza-iraunkortasunarekin loturiko zer arrazoi eman daitezke justifikatzeko 16 eta 18 urte bitarteko ikasleekin egiten dena 3 urtetik beherakoekin egin nahi ez izatea?

Nafarroako Foru Komunitatean garatu beharreko ereduarekin lotuta, bost urte iragan direnean, oraindik ez da argitaratu hezkuntza ziklo hori arautzeko iragarri zen foru dekretua, eta horrek ahalbidetzen du maila horretan haurrei laguntzeko eredu desberdinak izatea aldi berean eta Foru Komunitatean ezarri nahi den ereduari buruzko zalantzak sortzea.

Jabeldura:

Hori dela eta, Sozialisten parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuko lehendakariari jabeldura aurkeztu dio, hiru urtetik beherako haurrak Nafarroako hezkuntza sisteman eskolatzeari buruzko politikaren alderdi hauek azal ditzan:

=> UPN eta CDNren egungo Nafarroako Gobernuak zer eredu defendatzen duen hurrengo urteoi begira hiru urtetik beherako haurrak eskolatzeko.

=> Nafarroako gainerako hezkuntza sistemarekin duen lotura.

=> Ikasle horiei laguntzeko gaur egungo eredu an aurreikusten diren aldaketak.

=> Finantzazio sisteman aurreikusten diren aldaketak.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hirugarren adinekoentzako laguntza arau dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hirugarren adinekoentzako laguntza arau dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hirugarren adinekoentzako laguntzari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Héctor Maravallek laguntza programa eta zerbitzuei buruzko azterlan batean adierazi zuenez, adineko pertsonen artean badira ezaugarri komunak, baina baita desberdintasun handiak ere. Ez dira gauza bera adineko emakumearen egoera eta gizonezkoarena. Pentsioa dutenena eta ez dutenena. Diru baliabide nahikoak dituztenena eta zailtasun ekonomiko larriak dituztenena. Bakarrik

bizi direnena eta beste norbaitekin bizi direnena. Familia edo zaintzen dituen norbait dutenena eta halakorik ez dutenena. Landa eremuan bizi direnena eta hiri ingurunean bizi direnena. Osasun ona dutenena eta ez dutenena. Autonomia pertsonala dutenena eta mendekotasun egoeran daudenena.

Gizarte Ongizateko Departamentuak eta arartekoaren "Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntza" izeneko txosten bereziak emandako datuek nabarmen uzten dute Foru Komunitateko egoitzen sare nagusia, alegia, egoitza publiko, irabazi asmorik gabeko egoitza pribatu eta merkataritzako egoitza pribatuez osatua. Halaber, nabarmen uzten dute adineko pertsonen laguntzaren arloan botere publikoek duten utzikeria, baita egokiak ez diren gizarte politikaren bidez sortzen den era erabiltzaileen kalterako den berdintasun falta, baliabideei dagokienez.

Nafarroako populazioaren adin piramideak erakusten duenez, populazioa zahartzte prozesuan murgilduta dago eta, horrenbestez, zahartzeak ezinbesteko erreferentea izan behar du politika soziosanitarioen arloan.

Etxez etxeko laguntza 65 urtez gorako pertsonen % 5,07rengana iristen da. Egoitza-plazaren estaldura hirugarren adineko pertsonen % 5,11koa da.

Europako herrialdeetan, joera da etxez etxeko laguntzak egoitzako laguntzak baino estaldura handiagoa izatea; izan ere, hori da zaharrek eskatzen dutena eta, gainera, baliabide hori askoz merkeagoa da.

Sozialisten parlamentu-taldearen ustez, egokiena da, oro har, adineko pertsonak beren etxeetan egotea, baliabide eta laguntza egokiarekin, eta egoitzak behar handiagoa eta mendekotasuna duten pertsoneri laguntzeko uztea.

Nafarroako egoitza-plaza gehienak kudeaketa askekoak dira. Nafarroako Gobernuak egoitza-plazaren herena finantzatzen du soilik, kopuru desberdinen bidez, eta hori kontraesanean dago gizarte zerbitzuei buruzko legeak aldarrikatzen duen berdintasun eta unibertsaltasun printzipioekin.

Itunei dagokienez, merkataritzako egoitzak dira itun politikarekin onura gehien izaten dutenak. Gainera, Nafarroako Gobernuak itundutako plazako diru kopuru handiago ematen die irabazi asmoa duten egoitzei, zerbitzuaren kalitateari buruzko irizpide objektiboak kontuan hartu gabe.

Bereak ez diren egoitzetan eginiko egonaldiengatik laguntzek erabiltzaileari egiten diote mesede zuzenean, baina itunak entitate titularrekin egiten dira aldi baterako eta horrela dirusarrerak ziurtatzen zaizkio egoitzari.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoitzen arloko sektore publiko nahiz pribatua programatzeko eta antolatzeko oinarrizko irizpideak arau ditzan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoitzei buruzko araudi orokorra ezar dezan, besteak beste bilduko dituen zehapen araubidea eta ikuskapen sistema eraginkorra indartzea, behar diren langile eta baliabideekin.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoitzen finantzazio eta itun sistema alda dezan, gaur egun dauden desberdintasunak ezabatzeko eta zentroen kalitatea eta bideragarritasuna bermatzeko.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plaza lagunduetarako ematen diren laguntzak handitu ditzan, erabiltzaileek eta familiek, bereziki baliabide gutxien dituztenek, bere gain hartzen dituzten diru-ekarpenak murrizteko.

Iruñean, 2005eko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da industria plan bat egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da industria plan bat egin dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako industria plan bat prestatu eta garatzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Aspaldian ari gara ohartarazten Foru Komunitateko ekoizpen eta industria ehunean "larrialdi argiak" pizten ari direla, UPN eta CDN alderdiek osatutako Gobernuaren pasibotasuna eta erosotasunaren aurrean.

Tamalez, gero eta sarriago entzuten dira lanpostuak galtzen edo arriskuan dituzten enpresei eta langileei buruzko berriak –harzuria, ehungintza, zurgintza edo zapatagintzaren sektoreak leku-

ko– Nafarroako giltzarri den autogintzaren sektorea jasaten ari den tentsioak ahaztu gabe; izan ere, sektore hori ez dago bere onenean.

Halaber, hainbat enpresa ezin dira Nafarroan kokatu lurzoru industrialik ez dagoelako, eta hori Foru Komunitateko lurralde osoan entzuten den salaketa da.

Lurzoru industrial faltaren arrazoiak doaz UPNk eta CDNk osatutako Gobernuaren plangintza eskas edo plangintza ezetik hasita administrazioen arteko tentsio eta oztopoetara, nahiz eta horiek ez duten inolaz ere traba izan behar lurzoru industrial, Nafarroaren garapenaren ardatz den aldetik, handitzeko.

Beharrezkoa eta premiazkoa da egoeraren azterketa serioa egitea eta gure ekoizpen ehuna bultzatu, sendotu, dibertsifikatu eta deszentralizatu duten neurriak hartzea.

Aurrerapenaren bidean jarri eta Europako trenan ez galtzea ahalbidetuko duen industria plan bat behar du Nafarroak. Nafarroako industria globalizazioari eta gaur egun bizi dugun enpresen deslokalizazioari ahalik eta baldintza onenetan aurre egiteko moduan jarriko duen plana, hain zuzen.

Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialean inplikaturiko eragile guztien arteko akordio zabal baten funtsezko atala izan beharko du plan horrek: enpresak, langileak, gizarte eragileak, alderdi politikoak.

UPNk eta CDNk osatutako Gobernuaren pasibotasunak eta itxaroteko jarrerak bi urte baino lehen 3.000 lanpostu galtzera eramanen gaitu, gizarte eragileek eginiko kalkuluen arabera.

Gaur egungo egoera larriagotu egin da, UPNk eta CDNk osatutako Gobernuak ez duelako industria politika aktiborik garatu. Horren ondorioz, Nafarroako industria ez dago lehiarako baldintza onenetan, ezta dauden arazo guztiei aurrea hartzeko moduan ere.

Hori dela eta, PSNk industriaren behatokiak sorrera sustatuko du, eta beste horrenbeste egiteko eskatzen dio Nafarroako Gobernuari, lehiakortasuna, produktibitatea, esportazioak eta enpresa sustapena bultzatzeko eta sortzen ari diren sektoreei laguntzeko.

Horregatik guztiagatik, Sozialisten parlamentutaldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Nafarroako industria plan bat prestatu eta gara dezan, inplikaturiko eragile guztien lankidetzara eta parte-hartzearekin.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du industriaren behatoki bat sor dezan, Nafarroako industriaren egoera aztertzeko, bereziki ukitutako sektoreena.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat “Ikastetxe publikoak eraikitzea eta hobetzea” izeneko kontusailean sar dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat “Ikastetxe publikoak eraikitzea eta hobetzea” izeneko kontusailean sar dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Ikastetxeak eraikitzeko plangintza faltaren eta jada planifikaturik daudenetan izaten ari diren atzerapenen eraginez, eskola publikoaren egoera gero eta okerragoa da. Hori dela eta, beharrezkoa da premiazko jarduketak egitea aurrekontu ekitaldi honetan bertan.

Horregatik guztiagatik, Foru Komunitate honek eta Nafarroako gizarteak ezin dezakete jasan Gobernuak eman behar dituen oinarritzko zerbitzu publikoak gero eta okerrago ematea, Sodenak EHN enpresan zuen partaidetza saltzearen ondorioz lortutako baliabide ekonomikoak blokeatuta dituen bitartean.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du EHN enpresaren salmentatik etorritako dirutik 15 milioi euro Hezkuntza Departamentuari eman diezazkion eta, zehazki “Ikastetxe publikoak eraikitzea eta hobetzea 2005. urteko ekitaldian” kontusailean sar ditzan.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat 0tik 3 urtera bitarteko haurren eskoletarako erabil dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat 0tik 3 urtera bitarteko haurren eskoletarako erabil dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

0 eta 3 urte bitarteko haurren beharrei erantzuten dien ikastetxe publiko gutxi izateak ekarri du familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak lehen mailako arazo izatea Foru Komunitatean. Hori dela eta, beharrezkoa da premiazko jarduketak egitea aurrekontu ekitaldi honetan bertan.

Horregatik guztiagatik, Foru Komunitate honek eta Nafarroako gizarteak ezin dezakete jasan Gobernuak eman behar dituen oinarritzko zerbitzu publikoak gero eta okerrago ematea, Sodenak EHN enpresan zuen partaidetza saltzearen ondorioz lortutako baliabide ekonomikoak blokeatuta dituen bitartean.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du EHN enpresaren salmentatik etortitako dirutik 15 milioi euro Hezkuntza Departamentuari eman diezazkion eta horrek 0 eta 3 urteko haurrentzako haur eskoletarako erabil ditzan, 2005. urtean dagoen eskaintza publikoa handitzea bermatzeko eta finantziazioa –gaur egun udalen kargura– hobetzeko.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 3a

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat menpekotasuna eta gizarte bazterketa jasaten duten sektoreei laguntzeko erabil dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat menpekotasuna eta gizarte bazterketa jasaten duten sektoreei laguntzeko erabil dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gizarte Ongizateko Departamentuan aplikatzen ari diren etengabeko murrizketen ondorioz, beharrezkoa da premiazko jarduketak egitea aurrekontu ekitaldi honetan bertan.

Horregatik guztiagatik, Foru Komunitate honek eta Nafarroako gizarteak ezin dezakete jasan Gobernuak eman behar dituen oinarrizko zerbitzu publikoak gero eta okerrago ematea, Sodenak

EHN enpresan zuen partaidetza saltzearen ondorioz lortutako baliabide ekonomikoak blokeatuta dituen bitartean.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du EHN enpresaren salmentatik etorritako dirutik 15 milioi euro Gizarte Ongizateko Departamentuari eman diezazkion, menpekotasuna eta gizarte bazterkeria jasaten duten sektoreei babesa eta laguntzak emateko gizarte laguntzaren sektore desberdinetan lan egiten duten toki entitate eta irabazi asmorik gabeko entitateekin itunak egiteko 2005. urteko ekitaldian.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat herrietako osasun etxeetarako langile eta baliabideen eskaerari erantzuteko erabil dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNren salmentarekin lortutako diruaren zati bat herrietako osasun etxeetarako langile eta baliabideen eskaerari erantzuteko erabil dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Baliabide pertsonal eta teknikoaren eskasiaren ondorioz, oinarrizko osasun zerbitzuak gero eta okerrago ematen dira. Hori dela eta, beharrezkoa da premiazko jarduketak egitea aurrekontu ekitaldi honetan bertan.

Horregatik guztiagatik, Foru Komunitate honek eta Nafarroako gizarteak ezin dezakete jasan Gobernuak eman behar dituen oinarrizko zerbitzu publikoak gero eta okerrago ematea, Sodenak EHN enpresan zuen partaidetza saltzearen ondorioz lortutako baliabide ekonomikoak blokeatuta dituen bitartean.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du EHN enpresaren salmentatik etorritako dirutik 15 milioi euro Osasun Departamentuari eman diezazkion, Oinarrizko Osasun Zerbitzuak herrietako osasun etxeetarako langile eta baliabideen eskaerari erantzuteko erabil ditzan.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa eta Ingurumen Ministerioa premiatzen dira Itoizko urtegiaren segurtasunari lehentasuna eman diezaioten.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Ebroko Konfederazio Hidrografikoa eta Ingurumen Ministerioa premiatzen dira Itoizko urtegiaren segurtasunari lehentasuna eman diezaioten."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Hainbat gertaeraren bilakaeraren ondorioz, hala nola sismikotasun induzitua, Itoizko urtegiaren ontzian izan daitekeen lurrazpiko faila eta urtegiaren presaren ezkerreko mazelaren egonkortasun falta, estatuko arlo tekniko eta administratiboek zuzentzea, kezka eta Itoizko segurtasunari buruzko

azterketa teknikoak egiteko beharra agertu dute azken asteotan.

Nabarmenak dira eta egiaztatu dira, ez soilik mugimendu sismikoak, baita urtegitik datozen zaratak eta ezkerreko mazelako lurrazpiko mugimendua ere, eta horren ondorioz, Ingurumen ministro Cristina Narbona andreak berak txosten tekniko independenteak eskatu ditu, Itoizko presaren segurtasuna modu objektiboan aztertu eta berme teknikoa eman dezaten.

Gertakari horiek guztiak Ebroko Konfederazio Hidrografikoa eta Nafarroako Gobernuaren jarraera itxi edo obskurantista gaitzen dute, eta beharrezkoa da prebentziorako behar diren erabaki guztiak hartzea, pertsonen eta ondasunen segurtasunari lehentasuna emateko guztiaren gainetik.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dut, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoa eta Ingurumen Ministerioa premiatzen ditu, segurtasunari lehentasuna eman diezaioten beste edozein interesaren gainetik eta Itoizko urtegiaren prebentziorako eta era kontrolatua hustu dezaten, bertako pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatuta daudela erabat egiaztatu ahal izan arte.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen politikoa, Nafarroaren eskubide historikoen errespetua dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak gaitzesten eta arbuaitzen ditu Rodríguez Ibarra jaunak eta beste agintari politiko batzuek Nafarroako zerga araubidea zalantzan jarriz eginiko adierazpenak.

Nafarroako Parlamentuak exijitzen du Foru Komunitatearen berriazko eskubide historikoak, zehazki, zerga eta finantza araubidea errespetatu daitezkeen eta Foru Komunitateak Estatuarekin Itun Ekonomikoaren bitartez dituen bitariko harremanei zor zaien begirunea izan dakien.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Murietako Udalarekin araztegi bat jartzeko adostasun faltari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Murietako Udalarekin araztegi bat jartzeko adostasun faltari buruz foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako kontseilari Alberto Catalán jaunak ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko Osoko Bilkuran:

Zioak

Parlamentu-talde honek jakin duenez, NILSAk Ega ibarrean (Estellerría) jarri behar zuen araztegia eraikitzeke lanak atzeratu egin dira, eta atzerapen horren arrazoia omen da Murietako Udalaren eta zuk zuzentzen duzun departamentuaren artean ez dagoela adostasunik araztegia jarri behar den tokiaren gainean. Ega ibaira eginiko isurketen ondorioz, ibai horretako urak larriki hondatzen ari direla direla ikusirik, galdera hau aurkezten dut:

Galdera:

Zer adostasun falta izan dira Toki Administrazioako Departamentuaren eta Murietako Udalaren artean, horren ondorioz NILSAk Ega ibarrean (Estellerría) jarri behar zuen araztegia eraikitzeke lanak atzeratzeko?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, EHNren salmentatik etorritako diruaren gaur egungo egoerari buruzkoa.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea EHNren salmentatik etorritako diruaren gaur egungo egoerari buruz foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak lehendakari Sanz jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Ondoko gaiari buruzko jabeldura:

EHNren salmentatik etorritako diruaren gaur egungo egoera; Sodenak eta/edo Nafarroako Gobernuak funts horiekiko hartutako konpromisoak; erabilerari buruzko asmoak.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, farmaziako teknikari tituluari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok jaunak egindako galdera, farmaziako teknikari tituluari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Lanbide heziketan azken urteotan gauzatu den erreformaren barruan, farmaziako teknikariaren tituluari dagokion erdi mailako heziketa zikloaren curriculumak ezarri zen ekainaren 29ko 212/1998 Foru Dekretuaren bidez (1998ko azaroaren 13ko 136. Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Arau horretan zehazten denez, tituludun horiek farmazietan, ospitale-farmazietan, parafarmazietan eta sendagaiak banatzeko biltegietan eta farmazia industriean lan egin dezakete.

Dirudienez, espezialitate berri horretako tituludunek zailtasunak dituzte Nafarroako osasun sistema publikoan lana aurkitzeko. Titulu berri hori ezarri aurretik, Nafarroako ospitaleetako farmaziako laguntzaileek erizaintzako zainketa lagungarrien titulua izan ohi zuten, eta horretaz gain, farma-

ziako espezializazio ikastaroren bat egiten zuten ospitaleetan edo Osasun Eskolan. Antza denez, horiek dira oraindik eskatzen diren tituluak.

Farmaziako teknikari titulu berria Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 1/1992 Foru Legea onetsi ondoren ezarri zen. Lege horretako eranskinean farmaziako laguntzaileak agertzen dira osasun-estamentuen artean, ez ordea farmaziako teknikariak, logikoa denez. Baina dirudienez, horixe da ospitaleetan farmaziako teknikariak ez kontratatzeke ematen den arrazoia.

Paradoxikoa bada ere, ospitale publikoetako farmazia zerbitzuetan (Nafarroako Ospitalean, Bideko Ama Birjina Ospitalean, Psikogeriatrikoan) farmaziako teknikariak onartzen dituzte praktikaldia egiteko; aldiz, ezin dute lanposturik lortu.

Egoera horrek ukitutakoak kexu dira, titulu akademikoak arautzen dituen Hezkuntza Departamentuak eta osasunaren arloko langileen eskumena duen Osasun Departamentuak elkarri pasatzen diotelako horren gaineko ardura.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu: Egia al da Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez diola farmaziako teknikari tituluari baliorik aitortzen ospitaleko farmazia zerbitzuetarako langileak kontratatzeke? Gobernuak hartu behar al du neurririk farmazia teknikari tituludunek zerbitzu horietako lanpostuak eskuratu ahal izateko?

Iruñean, 2005eko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Bellosok

Galdera, kontserbatorio berria eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, kontserbatorio berria eraikitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2004ko martxoaren 3ko Hezkuntza Batzordean eginiko agerraldian, Hezkuntza kontseilariak ondoko informazioa eman zuen: "Pablo Sarasate Kontserbatorio berria. Aurreikuspenen arabera, Pablo Sarasate ikastetxe berria 2005. urtean hasiko da eraikitzen eta 12.000 metro koadroko azalera izanen du, garajeak kontuan hartu gabe. Proiektua 2004. urtean idatziko da eta 350.000 euroko kostua izanen du. Eraikinaren kostua 12.633.000 eurokoa izanen da eta lanak 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietako aurrekontuen kargura egingen dira".

Batzorde berean 2005eko apirilaren 28an eginiko agerraldian ikastetxeak eraikitzekeo planak izanen zuen atzerapenaren berri eman zuen eta, parlamentari honek kontserbatorio berriaren eraikitzeari buruz galdetu zionean, kontseilari jaunak hauxe esan zuen: "Kontserbatorioari dagokionez, osotasunaren zati dela iruditzen zait eta, horrenbestez, horrek ere atzerapena izanen du. Proiektuaren adjudikazioa egitear gaude, baina plana, ez idatzitakoa, nik buruan dudan plana baizik, ondokoa da: a) osotasuna, b) kontserbatorioa; izan ere, proiektu hori hain da funtsezkoa eta garrantzitsua, ezen gainerako guztia adina baita. Baina tira, biak balantzako plateretan jarrita orekatuak geratuko lirakeke. Horrenbestez, orekatuak jarrai dezaten, bi platerak atzeratu beharko dira. Bai, atzeratu egingen da, zalantzarik gabe".

Horrenbestez, Gobernuak galdera hauei erantzutea eskatzen dugu:

Zeintzuk dira kontserbatorio berria eraikitzekeo lanak atzeratzeko arrazoi zehatzak?

Zenbatekoa izanen da atzerapena? Zein da Gobernuak lanak egiteko daukan egutegia? Zer ikasturtetan utzi ahalko du kontserbatorioak gaur egun duen behin-behinekotasun egoera eta eraikin berria okupatu?

Nola beteko da indarrean dauden aurrekontuetan kontserbatoriorako dagoen 300.001 euroko kontusaila?

Iruñean, 2005eko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, “Etorkinak gizarteratzeko sostengu programa” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, “Etorkinak gizarteratzeko sostengu programa” izeneko kontusailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Gizarte Ongizateko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2005eko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko Foru Legean “Etorkinak gizarteratzeko sostengu programa” izeneko 924002-93300-4810-231605 kontusaila agertzen da, 573.645 euroekin.

Aldiz, gizarteratzearen esparruan aritzen diren irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulagun-

tzen 2005. urteko deialdian, “Etorkinak gizarteratzeko sostengu programa” izeneko 924002-93300-4810-231605 kontusailaren gastua agindu da, gizarte bazterkeria jasaten duten edo arrisku hori duten gizataldeak gizarteratzeko eta etorkinen gizarte sustapena bultzatzeko programak abian jartzeko, 223.646,00 euroekin; hau da, aurrekontuetan onartutako 350.000 euroak baino kopuru txikiagoarekin.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Aipatu deialdian zergatik ez da agindu Legebiltzarrean onetsitako aurrekontuen legean “Etorkinak gizarteratzeko sostengu programa” izeneko kontusailerako agertzen den gastu osoa?

Deialdi horretan bertan agintzen den gastua zergatik da aurrekontuei buruzko legean gizarte bazterkeria jasaten duten edo arrisku hori duten gizataldeak gizarteratzeko beste kontusail batzuetarako onetsitakoaren berdina?

Zertarako erabiliko da gainerako kopurua, hau da, “Etorkinak gizarteratzeko sostengu programa” izeneko 924002-93300-4810-231605 kontusailean agertzen den kopurutik deialdian aurreikusten ez diren 350.000 euro?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, “Etxebizitzarako eta gizarteratzeko laguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, “Etxebizitzarako eta gizarteratzeko laguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Gizarte Ongizateko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2005eko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko Foru Legean "Etxebizitzarako eta gizarteratzeko laguntzak" izeneko 924002-93300-4810-231604 kontusaila agertzen da, 719.867 euroekin.

Aldiz, gizarteratzearen esparruan aritzen diren irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen 2005. urteko deialdian, "Etxebizitzarako eta gizarteratzeko laguntzak" izeneko 924002-93300-4810-231604 kontusailaren gastua agindu da, gizarte bazterkeria jasaten duten edo arrisku hori duten gizataldeak gizarteratzeko eta etorkinen gizarte sustapena bultzatzeko programak abian

jartzeko, 160.000 euroekin; hau da, aurrekontuetan onartutako 559.867 euroak baino kopuru txikiagoarekin.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Aipatu deialdian zergatik ez da agindu Legebiltzarrean onetsitako aurrekontuen legean "Etxebizitzarako eta gizarteratzeko laguntzak" izeneko kontusailerako agertzen den gastu osoa?

Deialdi horretan bertan agintzen den gastua zergatik da aurrekontuei buruzko legean gizarte bazterkeria jasaten duten edo arrisku hori duten gizataldeak gizarteratzeko beste kontusail batzuetarako onetsitakoaren berdina?

Zertarako erabiliko da gainerako kopurua, hau da, "Etxebizitzarako eta gizarteratzeko laguntzak" izeneko 924002-93300-4810-231604 kontusailean agertzen den kopurutik deialdian aurreikusten ez diren 559.867 euro?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, "Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntzak" izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Mirandak andreak egindako galdera, "Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntzak" izeneko kontusailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Gizarte Ongizateko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2005eko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorre

buruzko Foru Legean "Gutxiengo etnikoen sustapenerako dirulaguntzak" izeneko 924002-93300-4810-231603 kontusaila agertzen da, 430.215 euroekin.

Aurrekontuei buruzko legearen eztabaidan zuzenketa bat aurkeztu zen, eta haren ondorioz, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen kontusail horri 100.000 euro gehitzea, eta hala jaso zen aurrekontuei buruzko legea argitaratu zenean.

Aldiz, gizarteratzearen esparruan aritzen diren irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen 2005. urteko deialdian, "Gutxiengo etnikoen sustapenerako dirulaguntzak" izeneko 924002-93300-4810-231603 kontusailaren gastua agindu da, gizarte bazterkeria jasaten duten edo arrisku hori duten gizataldeak gizarteratzeko eta ijitoen gutxiengo etnikoaren gizarte sustapena bultzatzeko programak abian jartzeko, 361.616,47 euroekin; hau da, aurrekontuetan onartutako 68.600 euroak baino kopuru txikiagoarekin.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Aipatu deialdian zergatik ez da agindu Legebiltzarrean onetsitako aurrekontuen legean "Gutxiengo etnikoen sustapenerako dirulaguntzak" izeneko kontusailerako agertzen den gastu osoa?

Deialdi horretan zergatik da bertan agintzen den gastua aurrekontuei buruzko legean gizarte bazterkeria jasaten duten edo arrisku hori duten gizataldeak gizarteratzeko beste kontusail batzuetarako onetsitakoaren berdina?

Zertarako erabiliko da gainerako kopurua, hau da, "Gutxiengo etnikoen sustapenerako dirulaguntzak" izeneko 924002-93300-4810-231603 kontusaillean agertzen den kopurutik deialdian aurreikusten ez diren 68.600 euro?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko planaren ebaluaziorri buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko planaren ebaluaziorri buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen gizarte bazterkeriaren aurkako plana. Plan hori indarrean dago 1998. urtetik hasita 2005. urteraino. Plana aplikatzeko azken urtean gaudez eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak plan horretan ezarritako helburuei, aurrekontuetan sartutako baliabideei eta helburuen lorpenari buruzko balorazioa egin izan duenez, hauxe jakin nahi dut:

Zertan da ebaluazio prozesua?

Noizko aurreikusten du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak ebaluazioa amaitzea eta Nafarroako Parlamentuari igortzea?

Gizarte Ongizateko Departamentuak ba al du asmorik gizarte bazterkeriaren aurkako planari jarraipenik emateko etorkizunean?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, oihan-ustiategietarako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, oihan-ustiategietarako dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Oihan-ustiapena diru iturri garrantzitsua da, bai Foru Komunitateko sektore ekonomiko batentzat, bai bertako udalerrri batzuetan; izan ere, jarduera horren bidez haien aurrekontuak orekatzen dituzte.

Duela bi urte, Nafarroako Gobernuak intsini pinuarekin lan egiteagatik ematen zituen dirulaguntzak kendu zituen, espezie horrek gaixotasun bat zeukala argudiatuta.

Orain, Gobernu berak, foru agindu baten bitartez eta Nafarroako Oihangintzako Kontseilu Ahol-

ku-emaileak iragan den otsailean egin zuen urteko bileran aipatu ere egin gabe, taeda pinuarekin eta Douglas izeiarekin lan egiteagatik ematen zituen dirulaguntzak ere kentzea erabaki du. Horretarako, zuhaitzen gaixotasun bera erabili du argudiotzat, oraingoan Ingurumen Ministerioaren laguntzarekin, eskualde hau izurri-eremu deklaratu nahi baitu.

Horrek guztiak kalte ekonomiko handia dakar partikularrentzat eta udal askorentzat, benetan zaila izanen baitute diru-iturri tradizional horren alternatibarik aurkitzea.

Nafarroako Gobernuak biderik errazena hautatu du, hain zuzen, dirulaguntza kentzea, eta horretarako izugarri ongi etorri zaizkio bai pinuen gaixotasuna, bai Madrilgo Gobernuaren erabakiak. Baina hori ez da nahikoa, Gobernuaren ardura da kaltetutakoei –besteak beste, udalei– irtenbide eraginkorra eskaintzea, finantziazio alternatiboa izan dezaten.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Ba al du Gobernu honek irtenbide eraginkorriko udalarentzat eta ukitutako sektore ekonomikoentzat, dirulaguntza horiek kentzeak ekartzen dizkiren ondorio ekonomiko larriak arintzeko?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Irunberriko San Isidro egoitza handitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Irunberriko San Isidro egoitza handitzea 1997-2000 urteetarako Nafarroako plan gerontologikoan aurreikusi zen; haren helburua zen Nafarroako eskualde bakoitzean lortzea baliatzen diren entza-

ko egoitza-tokien % 3 eta lagunduen egoitza-tokien % 2.

Lagunduentzako 30 toki gehitzea erabaki zen, psikogeriatria barne.

Eraikina Nafarroako Gobernuaren jabegokoa da eta hura handitzeko lanak oso-osorik finantzatu zituen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak; guztira, kostua 1.775.080 eurokoa izan zen.

Hala ere, gastu publiko hori egin arren eta kontuan hartuta plan gerontologikoaren helburuak, ez da itunik egin egoitza kudeatzeko ardura duen herri horretako gizarte zerbitzuen mankomunitatearekin.

Gaur egun, eraikitako 30 tokiak hutsik daude; titulartasun publikoko lagunduentzako 30 toki

hutsik daude eta, bitartean, Nafarroako Gobernuak egoitza pribatuekin ituntzen ditu mota horretako tokiak.

Horiek horrela, hona galderak:

– Noiz izanen da aukera aipatu lagunduentzako toki horiek abian jartzeko?

– Zein dira egoitza horretako 30 toki berriak betetzeko eskatuko diren laguntzarako baldintza ekonomikoak eta erabiltzaileen ezaugarriak?

– Zer dokumentazio eskatu zaio egoitza horri handitutako zatia abian jarri ahal izateko?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak publikoki eskuratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak publikoki eskuratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean 2003ko irailaren 18an egin zuen agerraldian, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak legegintzaldi honetan zehar departamentu horrek garatu behar zituen ekimenen berri eman zuen. Beste proiektu asko

ren artean, eta Nafarroako Administrazio Auzitegiari dagokionez, aipatu zuen “sistema informatikoa eta telematikoa ezartzeko proiektua, auzitegi horrek emandako ebazpenak hedatzea eta alor juridikoko eragileek horien berri izatea ahalbidetzeko”.

Legegintzaldiaren erdia iragan da eta oraindik ezinezkoa da Administrazio Auzitegiaren ebazpenak Foru Komunitatearen web orrian ikustea; aldiz, beste erakunde batzuen ebazpenak ikusgai daude, Nafarroako Auzitegi Ekonomiko Administrazioarenak eta Nafarroako Kontseiluarenak kasu.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zer urrats egin dira Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako ebazpenak publikoki eskuratu ahal izateko? Zer asmo dauka Gobernuak helburu hori lortzeko? Aurreikusi al da proiektu horren kostua eta ba al da horretarako dirurik aurrekontuan?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzendaria prestatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzendaria prestatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean 2004ko martxoaren 31n eginiko agerraldian, Nafarroako Gobernuak Barne zuzendari nagusiak Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan estrategiko bat prestatzeko prozesuari buruz informatu zuen. Aipatu agerraldian, Barne zuzendariak baieztatu zuen hurrengo hilabetean Nafarroako Su-itzaltze eta

Salbamendu Zerbitzuko Partzuergoaren zuzendaritza batzordeak haren onespena eman beharko zuela eta ondoren Nafarroako Gobernura igorriko zela.

2004ko maiatzaren 20an, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak aho batez onetsi zuen ondoko erabakia: "Nafarroako Gobernuak premia-tzen da sei hileko epean Nafarroako Parlamentura igor dezan Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren plan zuzendaria edo plan estrategikoa, Legebiltzarreko Erregelamenduari jarraituz eztabaidatu eta onets dadin".

Erabakian aipatzen diren sei hilabeteak ez ezik, ia beste sei ere iragan dira. Urtebete iragan da eta Legebiltzarrak ez du plan horren berririk.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zertan da plana prestatzeko prozesua? Zer asmo dago planaren tramitazioari dagokionez? Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen erabakia bete eta plana Legebiltzarrera igortzeko?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, hainbat eskualdetan telebista seinaleak hartzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, hainbat eskualdetan telebista seinaleak hartzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Interferentziak direla medio TVEren seinalea ongi hartzeko Bortzirietan dituzten arazo berri izan ondoren, gai horretan eskudun diren enpresa

eta erakundeek hainbat bilera egin zituzten arazo hori konpontzeko. Zehazki, iragan den ekainean, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiak adierazi zuen Retevisión enpresak aurkezturiko bi aukera tekniko aztertzen ari zirela eta hurrengo asteetan haietako bat hautatu eta ezarriko zutela, aurkitutako akatsak konpontze aldera.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Zer aukera hautatu zen? Zein dira hautaturiko konponbidea ezartzeko epeak?

2. Leitzako eskualdean ere arazoak dituztenez seinalea hartzeko, ezer egin al da hori konpontzeko? Zer neurri hartzeko asmoa dago? Zer epetan?

3. Ba al dago telebista seinaleak hartzeko arazorik Nafarroako beste eskualdeetan? Zein dira? Zer egin da arazo horiek konpontzeko? Zer neurri hartzeko asmoa dago? Zer epetan?

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltza-

reko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak proiektuko 920 programari dagokionez –93100 920000 2266 231002 “Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak”– foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehena. Aipatu kontusailaren betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean.

Bigarrena. Kontusail horretatik gaur arte betetakoak, kontzeptuen arabera sailkatuta, zertan erabili den zehazki.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Beste gastu batzuk” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Beste gastu batzuk” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako gal-

dera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren Zeharkako ekintzak haur eta gazteekin proiektuko 921 programari dagokionez –93100 921001 2269231700 231002 “Beste gastu batzuk”– foru-parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehena. Aipatu kontusailaren betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean.

Bigarrena. Kontusail horretatik gaur arte betetakoa, kontzeptuen arabera sailkatuta zertan erabili den zehazki.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Dietak, lokomozioa eta bidaia-gastuak” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren “Dietak, lokomozioa eta bidaia-gastuak” izeneko kontusaila betetzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak proiektuko 920 programari dagokionez –93100 920000 2300 231000 “Dietak, lokomozioa eta bidaia-gastuak”– foru-parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehena. Aipatu kontusailaren betetze-egoera, galdera hau jasotzen den egunean.

Bigarrena. Kontusail horretatik gaur arte betetakoa, kontzeptuen arabera sailkatuta, zertan erabili den zehazki.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

“Egues kasua” delakoa aztertzeke ikerketa batzordearen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak 2004ko azaroaren 25ean eginiko Osoko Bilkurak erabaki zuen “Egues kasua” delakoa aztertzeke ikerketa batzorde bat eratzea.

Hori dela eta, Erregelamenduko 61. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz, bidezkoa da onestea batzorde horren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua zuzenduko dituzten arauak.

Hori horrela, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, ERABAKI DA:

1. “Egues kasua” delakoa aztertzeke ikerketa batzordearen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea. Honen ondotik ageri dira arau horiek.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

“Egues kasua” delakoa aztertzeke ikerketa batzordearen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak

Lehenengoa. Ikerketa Batzordea eta haren jarduketak Legebiltzarreko Erregelamenduko 61. artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoari egokituko zaizkio.

Bigarrena. Ikerketa Batzordearen xedea “Egues kasua” ikertzea izanen da; zehazki:

1. Galipienzo jaunak, Eguesibarko Udaleko beste kargu batzuek edo horien hurbilekoek ordainsaririk jaso ote zuten edota beren karguak edo kargu horiek betetzen zituztenekin zituzten harremanak zuzenean edo zeharka beren probe-

txurako baliatu ote zituzten, Eguesibarko Udalaren hirigintza jarduketak egiteko.

2. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak edota bertako arduradunen batek, hirigintzako eskumenen titular zen aldetik, lagundu edo eragin zuen edota baliatu zuten Eguesibarren arauz aurkako hirigintza jarduketak egiteko.

Hirugarrena. Ikerketa Batzordea parlamentu-talde bakoitzeko bi kidek osatuko dute, eta erabaki guztiak boto ponderatuaren bitartez hartuko dituzte, batzordeko buruaren hautaketa barne. Bere taldea zenbat parlamentarik osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean eledun bakoitzak.

Laugarrena. Parlamentu-taldeen 2005eko maiatzaren 20ko 12:00ak baino lehen jakinarazi beharko diote Legebiltzarreko lehendakariari zein diren batzordeko kide izateko aukeratu dituztenak.

Bosgarrena. Ikerketa Batzordea 2005eko maiatzaren 30ean eratuko da, 12:00etan.

Seigarrena. Batzordea eratzeko bilkuran batzordeburua hautatuko da; hura ez badago, parlamentu-talde bereko batzordekide den beste foru parlamentaria arituko da haren orde. Batzordeari laguntzen dion legelaria izanen da batzordeko idazkari.

Zazpigarrena. Ikerketa batzordeak 2005eko urriaren 28a baino lehen amaitu beharko ditu bere lanak, eta egun horretan onetsi beharko ditu ondorioak. Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, epe hori luzatu ahalko du batzordeak eskatzen badu.

Zortzigarrena. 1. Batzordera agertzeke eskariak zitazio fede-emaile bidez eginen ditu Parlamentuko lehendakariak, hiru egun lehenago, gutxienez. Zitazio horretan haxe jaso beharko da:

a) Batzordeak pertsona hura agertzea eskatzeko erabakia hartu zuen eguna.

b) Agerraldira deitutakoaren izen-abizenak.

c) Agerraldiaren tokia, eguna eta ordua.

d) Ohartarazpena, adierazteko ezen, agertzen ez bada, Zigor Kodearen 502.1 artikuluan jasotako desobeditze-delitua eginen duela.

e) Agerraldian hizpide izanen dituen gaiak.

f) Espresuki aipatuko da Konstituzioak aitortzen dituen eskubideak errespetatuko direla; bereziki, pertsonen intimitate eta ohorerako eskubidea, sekretu profesionala eta kontzientzia klausula.

2. Agertzeko eskaria funtzionario publiko bati egiten zaionean, zitazioaren kopia hierarkian haren gainean dagoenari igorriko zaio, jakinaren gainean egon dadin, ez besterik.

3. Agerraldira deitutakoak laguntzeko izendatzen duen pertsonarekin egin ahalko du agerraldia.

4. Legebiltzarreko lehendakariaren iritziz agerraldia ez egiteko arrazoiak daudenean, aurrerago egin ahalko da berriz zitazioa, 1. atalean aipatzen den moduan.

5. Agerraldira deitutakoak batzordean adierazpenak egin aurretik, batzordeburuak hura ohartaraziko du Parlamentuko batzorde baterako deialdia jaso eta lekukotza faltsua ematen duenarentzat Zigor Kodearen 502.3 artikulua ezarritakoaz.

6. Agerraldira deitzearen ondorioz deitutakoari sortutako gastuak ordaindu egiten zaizkio, behar bezala justifikatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko aurrekontuaren kargura.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	42,35 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,10 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,27 »